

DURANGOKO AZOKA

ARAUDIA



www.durangokoazoka.eus

Gerediaga elkarte
www.durangokoazoka.eus
www.gerediaga.eus

DURANGOKO AZOKAREN ARAUDIA

Sarrera

Gerediaga elkarteak 1965. urtean sortu zen, Durangaldeko eskualdearen kultura eta nortasuna finkatzeko, sustatzeko eta zaintzeko helburuz.

Helburu hori aurrera eraman ahal izateko, 1965ean Gerediaga elkarteak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen lehen aldiz, euskal gaien alde lan egiten zuten liburu eta disko sektoreen topaleku izan zedin eta gizarteak euskara eta euskal kultura bizitzeko aukera izan zezan.

Urteetan zehar bere helburu nagusiari eutsi dio: euskaraz egindako edo Euskal Herriari lotutako gaiak dituzten ekoizpen lanak erakusteko eta saltzeko leku izatea.

Azken urte hauetan, Durangoko Azokak, ohiko salmenta guneaz (Azoka) gain, euskal kulturaren hedapenerako eta sustapenerako beste gune batzuk ere garatu ditu (guneak).

I. KAPITULUA. Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Araudiaren xedea

Durangoko Azoka, Durangon (Bizkaia) urteroko maiztasunez egiten den jarduera da, euskarazko edo euskal gaiak jorratzen dituzten liburu, aldizkari, disko eta multimedia euskarrietan argitaratutako ekoizpen lanen erakusketa eta salmenta sustatzeko.

II. KAPITULUA. Azokaren antolakuntza

2. artikulua. Azokaren titularitatea eta antolakuntza.

2.1 Durangoko Azokaren titularitatea Gerediaga elkarteari dagokio.

2.2 Azokaren antolakuntza Gerediaga elkartearen esku dago, eta haren eskumenak Araudi honen 3. artikuluan araupetzen dira.

2.3 Gune guztietan aurrera eraman beharreko programazioaren antolakuntzarako, Gerediaga elkarteak Euskal Herriko hainbat kultur eragileren elkarlana dauka.

3. artikulua. Gerediaga elkarteak

3.1 ESKUMENAK. Gerediaga elkarteari eskumen hauek dagozkio:

- Durangoko Azokaren antolakuntzarako eta garapenerako eta araudi honen aplikaziorako beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- Azokan parte hartzeko eskarien gainean ebaztea.
- Azokako espazioen esleipenari buruz ebaztea, araudi honetan ezarritako irizpideen arabera.

- Araudi honetan jasotakoetatik sortutako beste edozein.
- Gerediaga elkarteak beretzat hartzen du araudi honen artikuluen interpretazioaren gaineko azken erabakia, baita artikulua hauetan beren beregi aurreikusi gabeko balizkoetan ere.

3.2 OSAKETA. Gerediagako zuzendaritza gehienez hamar kidek osatzen dute: presidenteak, presidenteordeak, diruzainak, idazkariak, mahaikideek, kudeatzaileak eta Gerediagako langile batek. Kudeatzaileak eta langileak ahotsa dute, baina botorik ez.

3.3 AKORDIOAK HARTZEA. Gerediaga barruan eztabaidatzen den gairen baten inguruko bozketaren emaitza kideen arteko berdinketa bada, presidentearen botoa kalitatezkoa izango da eta, ondorioz, balio bikoitza izango du.

3.4 AKTAK. Idazkariak egiten diren bileren eta hartzen diren akordioen akta jasoko du, presidentearen eta gainerako kideen oneritziarekin.

4. artikulua. Durangoko Azokaren Zuzendaritza

Durangoko Azokaren Zuzendaritza Gerediagako Zuzendaritza Taldearen esku egongo da. Presidenteak izango da Batzordearen ordezkari lanak egingo dituenak, baita batzordearen ahaldun den guztiena ere.

Gerediagako kudeatzailea, langileak eta Durangoko Azokaren antolakuntzan parte hartzen duten beste eragile batzuk presidentearekin elkarlanean arituko dira, bere eginbeharrak betetzeko orduan.

III. KAPITULUA. Azokan parte hartzeko baldintzak

5. artikulua. Eskatzaileek bete beharrekoak

5.1 STAND ESKARIA. Hauek izango dira Azokan standa eskatu ahal izango dutenak:

- a) Ondoren aipatzen diren eskakizunak betetzen dituzten enpresak (argitaletxeak, disko etxeak, ekoizpen enpresak, banatzaileak), elkarteak edo erakunde ofizialen edo beste erakunde batzuen argitalpen zerbitzuak:
 - Araudi honen 7. artikuluan adierazten dena betetzen duten produktuak saldu eta erakusteko gaitasuna izatea.
 - STAND ERDIA: Stand erdia aukeratzen dutenek, beste stand erdi batekin stand oso bat partekatu beharko dute. Erakusleei dagokie partekatuko duen erakundearen aipamena aurkeztea eskariarekin batera, eta biek ere araudi honetan jasotzen diren eskakizunak bete beharko dituzte.
- b) Aurreko puntuan aipatutako eragileen ordezkariak, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:
 - Standa, ordezkarietako eragilearen izenean egongo da.
 - a) ataleko eskakizun guztiak bete beharko ditu.

- c) Gerediaga elkartearen beren beregiko gonbidapena jasotzen duen beste edozein enpresa, elkarte, erakunde publiko, babesle edo artikulu honetan aurreikusi gabeko edozein.

5.2 AUTO-EKOIZPENA. Partekatutako espazio berezia alokatu ahal izango dute euren katalogoan auto-ekoiztutako produktu bi edo gutxiago dauzkaten sortzaileek edo elkarreek.

- Araudi honen 7. artikuluan adierazten dena betetzen duten bi produktu edo gutxiago edukitzea katalogoan.
- Eskakizun honek ez ditu baztertzen euren sorkuntza lanaren parte bat enpresekin argitaratuta duten sortzaileak, baina auto-ekoizpenari dagokion erakusmahaiari gehienez bi produktu izango ditu.
- Erakusmahaiari autogestionatutako espazioa izango da. Azokara orduko bilera bat egingo da erakusmahaiari txandak, dekorazioa eta saldutakoaren diruaren kudeaketa zehazteko.

5.3 DURANGALDEKO ARGITALPENAK. Stand komun honetan, ondoren adierazten diren eskakizunen bat betetzen dituzten eta helbide fiskala Durangaldeko udalerriren batean duten sortzaileek, enpresek (argitaletxeek, disko etxeek, ekoizpen enpresek, banatzaileek), elkarreek edo erakunde ofizialen edo beste erakunde batzuen argitalpen zerbitzuek hartu ahal izango dute parte:

- Aurkeztutako produktuak Durangaldeko gaiei buruzkoak izatea, hizkuntza edozein dela.
- Euskarazko sorkuntza lanak edo elebidunak (hizkuntzetako bat euskara izanda)

Erakusmahaiari Gerediaga Elkarteko langileek kudeatuko dute eta salmentarako produktuak esandako leku eta epean aurkeztu beharko dira. Saldutakoaren dirua osorik bueltatuko zaio partaideari.

5.4 ONARPENA. Gerediaga Elkarreak izango du eskubidea aurreko urteetako edizioetan araudia ez betetzea edo ordainketa ez egitea edo Azokarekiko beste zorren bat dituztenak onartzeko edo baztertzeko.

IV. KAPITULUA. Azokan standa edo espazioa esleitzeko prozedura

6. artikulua. Parte hartzeko eskaria

6.1 GALDETEGIA. 5. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten eta Azokan parte hartzeko interesa duten pertsona fisikoek edo juridikoek, Durangoko Azokaren www.durangokoazoka.eus webgunean erregistratu eta galdetegiaren bitartez eskatu beharko dute parte hartzea.

6.2. AURKEZPENERAKO EPEA. Eskaria ezarritako epearen barruan aurkeztu eta interesatuei jakinarazi beharko zaie, jakinarazpen zuzen bitartez edo Durangoko Azokaren webguneari (www.durangokoazoka.eus) bidez.

Epez kanpo aurkeztutako eskariak %15eko gainordaina izango dute partaidetza kuotan, eragindako ez ohiko kudeaketa gastuak direla eta. Dena den, Gerediaga elkarreak esleipena emateko eskubidea izango du.

6.3. PARTE HARTZEKO KUOTA. Eskaria eta ondorengo esleipena aurrera eramán ahal izateko beharrezkoa izango da aurretik partaidetza kuota ordaintzea, antolakuntzak ezarritako baldintzetan. Partaidetza kuota hori Gerediaga elkarteak finkatuko du urtero.

Kuota antolakuntzak ezarritako baldintzen arabera ordaintzen ez bada, partaideak Azokan parte hartzeari uko egiten diola ulertuko da.

6.4. SALBUESPENAK. Gerediaga elkarteak kudeatutako Durangaldeko argitalpenak espazio komuneko partaideek eta Durangoko Azokaren beren beregiko gonbidapena jaso dutenek ez dute bete beharko artíkulu honetan adierazten dena.

7. artíkuluá. Esleipenerako irizpideak

Durangoko Azoka xede zehatz batekin eta mugatutako espazio batean egiten da. Hori dela eta, Azokan standen zein espazio komunén (auto-ekoizpena eta Durangaldeko argitalpenak) esleipena, aurkeztutako ekoizpen motan oinarritutako irizpideetara egokituko da. Lehentasuna euskara hutsezko argitalpen eta materialek izango dute. Ondorioz, eskariak, berez, ez du ematen stand edo espazio bat esleitzeko eskubiderik.

Stand edo espazio partekatuaeren esleipena jasotzeko eskubidea izango dute ondoren aipatzen diren eskakizunetara egokitzen diren produktuak erakusten edo saltzen dituztenek:

7.1. LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

- Zabalkunde lanak (historia, politika, artea...)
 - Euskaraz edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
 - Edozein hizkuntzatan, euskal gaia bada
- Literatura lanak (eleberria, poesia, entsegua...)
 - Euskaraz edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
 - Jatorrizko bertsioa euskarazkoa denean, beste hizkuntza batzuetara itzulita dauden lanak.
 - Edozein hizkuntzatan, idazlea/k euskaldunak badira eta Euskal Herrian girotuta badago.

7.2. MUSIKA.

- Kantuen heren bat euskarazkoak dituzten lanak.
- Erabat melodikoak diren diskoetan, euskal musikarién sorkuntza lanak eta/edo interpretazioak onartuko dira.

7.3. MULTIMEDIA

- Euskarazkoak edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
- Ahozkotasunik edo testurik ez dutenen kasuan, euskal sortzaileen lanak onartuko dira.

7.4. **BESTEAK.** Gerediaga Elkarateak euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin honako materialeak ere onartuko ditu:

- *Papertegia.* Agendak, egutegiak, postalak eta pegatinak
 - Euskaraz edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
 - Euskal Herriko ikonografia edo argazkiekin
- *Mahai-jokoak* eta joko didaktikoak
 - *Euskaraz edo elebidunak.* (Euskara hizkuntzetako bat)
- *Panpinak.* Euskal kulturako pertsonaien errepresentazio direnean
- *Produktu-sortak: Elementu nagusi modura euskarazko liburu, disko edo multimedia duenean.*

Halaber, **Gerediaga elkarateak Azokan aurkeztutako produktuen egokitasunari buruz ebatzi ahal izango du edozein unetan.**

8. artikulua. Eskariei buruzko ebazpena

Azokan parte hartzeko eskariak aurkeztu ahal izateko epea amaitu ondoren, Gerediaga elkarateak eskariei buruzko ebazpenak hartuko ditu, eta banan-banan jakinaraziko dizkie eskatzaileei, onartuak izan baldin badira, bakoitzari dagokion stand kopurua eta stand horiek zein lekutan egongo diren.

Onarpenaren jakinarazpenak, merkataritza kontratazio egoera irmoa eragingo du.

Onartuak izan ez diren edo, antolakuntzak aurkeztutako ekoizpenaren parte bat onartu ez duen kasuetan, hiru egun balioduneko epea egongo da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ebazpen horren aurkako helegitea Gerediaga elkaratearen aurrean aurkeztu ahal izateko. Helegitea idatziz aurkeztu beharko da, horren oinarri diren arrazoiak adieraziz eta bidezkoak izan daitezkeen frogak aurkeztuz. Aipatutako epearen barruan helegiterik aurkezten ez bada, partaideak Gerediaga elkarateak hartutako erabakia onartzen duela ulertuko da.

Helegitea aurkezteko epea amaitu eta gero, Gerediaga elkarateak, kontratatutako eta onartutako zerbitzuei dagokien faktura bidaliko du. Eskaria onartzen ez bada edo mugatuta onartzen bada, aurre-ordainketa gisa onartutako kopurua itzuli egingo da, inolako interes tasarik, konpentsaziorik edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Faktura bidali eta gero, onartutakoak Azokan parte hartzeari uko egiten badio, antolakuntzak, ordaindutako kanonaren %100 beretzat gordetzeko eskubidea izango du, ez aurkezteagatik kalte-ordain gisa.

V. KAPITULUA. Durangoko Azokako partaideen estatutua

9. artikulua. Partaideen eskubideak

Standen esleipenak lortu dituzten partaideek edo auto-ekoizleen espaziokoek ondoren adierazten diren eskubideak dituzte:

9.1. PRODUKTUEN SALMENTA. Antolakuntzak onartzen dituen eta 7. artikuluan ezarritako eskakizunetara egokitzen diren produktuak saldu ahal izango dituzte, euren espazioetan edo euren ordezkarietan.

9.2 SUSTAPENA. Azoka gunearen barruan, Azokako partaideek sustapen ekintzak egin ahal izango dituzte. Horretarako, antolakuntzak zenbait bide jarriko ditu partaideen esku:

- ✓ *Egileen presentzia*. Sinaduren iragarpena megafoniaren eta webgunearen bitartez egingo da, aurretik datuak intranetean sartuz.
- ✓ *Erakusketa*. Urteko ekoizpena ikusgai egongo da, jendeak kontsulta dezan.
- ✓ *On-line katalogoa*. Berrikuntzak eta argitalpenen funtsa sartuko dira, eta webgunean bilatzeko aukera egongo da.
- ✓ *Zuzeneko aurkezpenak*. Partaideek euren produktuen zuzeneko aurkezpenak egiteko aukera izango dute, Azokak antolatutako guneean. Aurretik eskaria egin beharko da, antolakuntzak ezarritako epeetan. Lekua egitarauan jasota dauden ordutegiak bete arte bakarrik bermatuko da. Eta lehentasuna euskara hutsezko ekoizpenen aurkezpenek izango dute.
- ✓ *Publizitate txertatzeak*. Stand bakoitzak azokako webgunean euskaraz iragarki bat jartzeko aukera izango du. Horretarako, intranetean egokitutako ereduak erabiliko dira, ezarritako epeetan.
- ✓ Musikari dagokionez, azokako egunetarako play-list bereziko kantu berriak proposatu daitezke (horretarako ezarritako epe eta moduan). Euskara hutsezkoa kantuek edo melodikoak bakarrik onartuko dira.

9.3 ZERBITZU OROKORRAK. Azokan parte hartzeak zerbitzu hauez gozatzeko eskubidea dakar:

- Aparkalekuak. Gutxienez aparkaleku plaza bat izango dute eskari bakoitzeko (ez stand bakoitzeko). Azoka hasi aurreko egunetik azoka amaitu ondorengo egunera arte balioko du.
- Zaintza zerbitzua. Azoka hasi aurreko egunetik, amaitu ondorengo egunera arte luzatuko da, arratsaldeko 20:30etatik goizeko 10:00ak arte.
- Izaera pribatua duen "Atsedeen gunera" eta kafetegira sartzeko aukera (akreditazioarekin)
- Garbiketa, WIFI-a, argia...
- Irekiera ordua baino ordu erdi lehenago Azokara sartzeko aukera (akreditazioarekin)

Durangaldeko Argitalpenak eta auto-ekoizleen erakusmahaietan parte hartzearen ondoriozko eskubideak partaide bakoitzarekin adostuko ditu Gerediaga elkarteak.

10. artikulua. Partaideen betebeharrak eta erantzukizunak.

10.1. BETEBEHARRAK. Standen esleipenak lortu dituzten partaideei edo auto-ekoizleen espaziokoek ondoren adierazten diren betebeharrak dituzte:

- Argitalpenen urteko katalogoa bidaltzea, antolakuntzak ezarritako epeetan. Partaide berriek katalogo osoa bidali beharko dute. Bi kasuetan, informazioa Durangoko Azoka webgunearen intranetean katalogo atalean dagoen eredura egokituko da. Gainera, azoka egunetan salmentarako egokituko diren produktu-sortak zehaztu beharko dira.

- Berrikuntzen (iraila eta abendua arteko argitalpenak) zerrenda bidaltzea, gutxienez egilea eta izenburua jarriz, antolakuntzak ezarritako epeen barruan.
- Urteko ekoizpenaren bi ale Gerediaga elkarteari ematea. Ale horiek erakusteko erabiliko dira eta, ondoren, Gerediaga elkartearen funts dokumentalean sartuko dira, edo bidezkoak iritzitako helburu ez komertzialetara bideratuko dira. Emateko epea amaitu ondoren informazio standean aurkeztu beharko dira, Azoka hasi baino lehen.
- Standak, antolakuntzak ezarritako egunetan eta orduetan muntatzea eta desmuntatzea.
- Standak diseinu propioa izatea erabakitzen duten partaideek Gerediaga elkarteari jakinarazi beharko diete urriaren 30a baino lehen. Eskatutako stand diseinura egokitzeak dakarren gainerako kostua partaideek ordainduko dute. Dena dela, oinarritzko standaren neurriak ezingo dira sekula gainditu. Diseinuak sortutako edota eragindako edozein kalteren erantzulea stand horren esleiduna izango da.
- Egileen sinadura ekitaldietan, jendetza aurreikusi ezker, Gerediaga elkarteari jakinaraztea izena-ematearekin batera. Salmenta-promoziorako burutuko diren beste edozein ekintza, gutxienez 48 ordu arinago jakinarazi beharko da. Kasu bietan, partaidearen ardura da bisitariaren eta gainontzeko partaideen jardunean ahalik eta eragozpen gutxien sortu dezan ziurtatzea.
- Ikus-entzunezko produktuen soinuari dagokionez norbanako bitartekoak erabiltzea.
- Azoka egiten den egunetan produktuak goizeko 09:30etatik 10:30etara kargatzea eta deskargatzea, ezkerrean dauden ateak erabiliz.
- Norbere eta alboetako espazioa garbi eta ordenatuta izatea.
- Produktu guztietan %10eko beherapena egitea aurretik akreditatzen diren Gerediaga elkarteko kideei.
- Gerediaga elkarteak eskatzen dion informazioa ematea, Azoka aurretik zein Azokak irauten duen bitartean.
- Azokaren araudia betetzea.

10.2. ERANTZUKIZUNAK. Ondorengo arduraren ardura standen edo espazio komunen esleipena jaso duten partaideena izango da:

- Durangoko Azokan edo bertako antolatzaileengan edo beste pertsona batzuegan eragin ditzaketen kalteena.
- Standeko materialaren zaintza, 10. artikuluan adierazten den zaintza ordutegitik kanpo.
- Erakusleak Durangoko Azoka barruan egiten duen jardueratik aplikagarri zaizkion lege eta araudiak betetzeko erantzukizuna du. Erakusleak aurre egin beharko die aipatutako arauak ez betetzeagatik ezarri dakizkietan isun edo zigorrei.

11. artikulua. Partaidearen debekuak

Azokako partaideek ezin izango dute:

- Standa edo parte bat, eskatzailea ez den subjektu bati utzi, ordezkaritza kasuetan izan ezik (5.1.b. artikuluan xedatutakoaren arabera)

- Standaren eskaria egin duen subjektuak argitaratu edo banatzen ez dituen produktuak erakutsi edo saldu.
- Debehatuta dago, araudi honen 7. Artikuluan jasotako irizpideak betetzen ez dituzten produktuak.
- Standaren neurrietatik kanpo osagarriak jarri. Standaren dekorazioa eta altzariek ezin dute bisitariaren joan-etorrian eragozpena izan, ezta beste partaideen standen ikusgarritasunean ere. Debehatuta dago, Azokaren planoan jasota dauden zirkulazio pasalekuak blokeatzea.
- Standa itxita edo material barik izan, azokak ateak zabalik dituen bitartean. Gainera, momentu oro, arduradun bat izango da bertan.

Gerediaga elkarteak araudia betetzen dela ikuskatzeko eskubidea izango du.

IV. KAPITULUA. BESTE XEDAPEN BATZUK

12. artikulua. Ez betetzeak

- Hutsegite arinak izango dira araudi honetako 10. Artikuluan adierazita dauden betebeharrak ez betetzea.
Hutsegite arinak berbaz adieraziko zaizkie partehartzaileei, bete ditzaten.
- Hutsegite larriak izango dira araudi honetako 11. artikuluan adierazita dauden debekuak ez betetzea eta era berean, hiru hutsegite arin batzea.
Hutsegite larriak idatziz jakinaraziko zaizkie partaideei eta momentuan betetzea eskatuko zaie.
- Hutsegite oso larria izango da bi hutsegite larri pilatzea edota hutsegite larri bat errepikatzea.
Hutsegite oso larria gertatu ezker, partaideak hurrengo parte hartzen duen edizioan %25eko igoera izango du standaren prezioan.

Hutsegite oso larria errepikatuko balitz, hurrengo bi edizioetan Durangoko Azokan parte hartzeko debekua ekarriko luke

13. artikulua. Ezinbestekotasuna

Ezinbesteko kasuetan, Durangoko Azokaren datak aldatu egin ahal izango dira edo Azoka bera ez egin. Kasu horretan, Gerediaga elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango, eta bere betebeharrak bakar, standen alokairu gisa jasotako kopuruak itzultzea izango da. Dena den, espazioen alokairuaren prezioaren %25era arte beretzat gorde ahal izango du, antolakuntza gastuengatik konpentsazio gisa.

Behin Durangoko Azoka inauguratu ondoren bertan behera utzi behar baldin bada, ez da espazioen alokairuaren zenbatekorik itzuliko.

14. artikulua. Araudiaren onarpena

Azokan parte hartzeko eskariaren aurkezpenak, araudi honen eta Gerediaga elkarteak har ditzakeen xedapenen eta akordioen beren beregiko onarpen osoa dakar berarekin.

Halaber, Gerediaga elkarteak, Durangoko Azokako antolatzaile nagusi modura, araudi honetan jasota ez dagoen guztiari buruz erabakitzeke eskumena izango du.

15. artikulua. Jurisdikzioa

Araudi honen baliozkotasunarekin, interpretazioarekin edo burutzapenarekin erlazionatuta planteatu daitekeen edozein zalantza edo gatazka ebazteko, Durangoko epaitegiak eta epaimahaiak izango dira eskudunak, aplikagarri izan daitekeen beste edozein foru baztertuz.